BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3725

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 13koa, Industria eta Energiako sailburuordearena, krisian dauden enpresak berriz ere egituratu eta merkaturatzeko laguntzak ezartzen dituen abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2011. urteko onuradunen zerrenda jendaurrean jartzen duena

Diru-laguntzen jardueran nagusitu behar den publikotasun-printzipioa betetze aldera, krisian dauden enpresak berriz ere egituratu eta merkaturatzeko laguntzei buruzko 300/2000 Dekretuak xedatzen du, horri dagokionez, 2011. urterako, laguntzak emateko ebazpenak interesdun bakoitzari modu indibidualizatuan jakinarazteko betebeharra alde batera utzi gabe, esleipendunen zerrenda argitaratuko dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hala, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Krisian dauden enpresak berriz ere egituratu eta merkaturatzeko laguntzak ezartzen dituen programa arautzen duen abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuko laguntzen onuradun 2011n izan diren eskatzaileen zerrenda jendaurrean jartzea, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria Garatzeko zuzendariak bere eskumenak gauzatuta emandako ebazpenen arabera. Zerrenda txertatutako eranskinean jasotzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 13a.

Industria eta Energiako sailburuordea,
FRANCISCO JAVIER GARMENDIA MARTÍNEZ.

I. ERANSKINA

Krisian dauden enpresak berriz ere egituratu eta merkaturatzeko laguntzak ezartzen dituen abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuan aurreikusitako laguntzen onuradunak, 2011. urtean

Onuraduna	Aurrerakin itzulgarria
TS Fundiciones, S.A.	1.681.994,00 €
Industrias Metálicas de Guipuzcoa, S.A.	500.000,00 €
Edicar Plásticos, S.L.	990.000,00 €
Forging Precidión Systems, S.L.	740.961,00 €
Forging Products Trading, S.A.	1.682.833,00 €